

XXXVI. Basarri Bertsopaper saria



Zarauzko Udalak euskara suspertu eta bertso-gintzari lagundu nahian, XXXVI. Basarri Bertsopaper saria antolatu du.

1. DIRU SARIA

- Lehenengo saria: 1.500,00 euro eta txapela.
- Bigarren saria: 1.000,00 euro eta oroigarria.
- Sariak zatiezinak izango dira, eta, lanek behar adinako mailarik ez badute, sariak eman gabe gera daitezke.
- Sarien diru kopuruek indarrean dagoen lege-dian ezarritako atxikipena izango dute.
- Parte-hartzaile berak sari bat baino gehiago ezin izango du eskuratu. Lortzen duen saririk handiena emango zaio.

2. LANEN EZAUGARRIAK

- Bertsopaper bakoitzak, gutxienez, zortzi bertso izan behar ditu.
- Bertsoetik bertsoa bi lerro zuri utziko dira.
- Izengoitiz sinatuko dira.
- Parte hartzaileek gehienez bi lan bidal ditzakete.
- Lanak originalak, argitaragabeak eta beste inolako lehiaketetan saritu gabeak izan beharko dira.
- Gaia librea izango da.

3. LANAK AURKEZTEKO EPEA

Lanak aurkezteko epea 2020 ekainaren 14an amaituko da.

4. LANAK ENTREGATZEKO

Jatorrizko lanak emailaz aurkeztuko dira soilik, kultura@zarautz.eus helbidera bidaliz.

5. INFORMAZIOA

943 00 51 20 telefonoa edo kultura@zarautz.eus.

6. LANAK POSTA ELEKTRONIKOZ NOLA AURKEZTU

- Bi pdf artxibo bidaliko dira:
 1. Bertso sorta (pdf. dokumentuaren izena: bertso sortaren izenburua eta parentesi artean egilearen izengoitia).
Adibidez: Udaberria (Pirata beltza).pdf
 2. Izenemate orria osatuta eta sinatuta (pdf dokumentuaren izena: egilearen izengoitia).
Adibidez: Pirata beltza.pdf

7. EPAIMAHAIA

Zarauzko Udaleko Kultura Departamentuan lanak jaso eta epaimahaikideei helaraziko zaizkie. Kultura Departamentuak gordeko ditu izenemate orriak eta behin epai-mahaiak erabakia hartzen duenean zabalduko da irabazlearena.

- Epaimahaia Zarauzko Udalak izendatuko du, eta horretarako, pertsona adituak aukeratuko ditu.
- Epaimahaikide izango da aurreko urteko Basarri bertsopaper sariaren irabazlea.
- Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da.

8. EPAIA ETA SARI BANAKETA

Epaia 2020ko uztaila hasieran emango da jakitera.

Sari banaketa 2020 Bertso Astean egingo da.

9. LANEN JABETZA ETA SARITU GABEKO LANAK

Saritutako lanen jabetza Zarauzko Udalaren esku geldituko da, eta honek, sari-banaketa ondoren, hamar urteren barruan eman ditzake lanak argitara. Kasu horretan, egileak ezingo dio inolako ordainik eskatu Udalari.

Udalak erabakiko du saritu gabeko lanekin zer egin.

10. LEGE BARRUTIA

- Araudi honetan jasotzen ez den edozein gora-beheratan, epaimahaiak dauka erabakitzeko ahalmena.
- Lehiaketa honetan parte hartzeak berarekin dakar oinarri eta baldintza hauek guztiak onartzea.

